

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

- Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: Proiektua martxan jartzekotan, bakoitzaren abileziak erabili beharko ditugu: Haizearen sormena eta kreatibotasuna, Gorkaren abilezia teknologikoak eta aplikazioen sorrerarako jakintza, Maitaneren idazteko eta azaltzeko gaitasuna, Izaroren gogoak eta koordinazioa, eta Iratiren ideia berritzaileak eta kontaktuak.

Finantza-baliabideak: Gure aurrezkiak erabiliko ditugula uste dugu; ikasten dugun bitartean lanean hasten bagara, boston artean beharrezko aurrezkiak lortuko ditugula esango genuke. Bestela, gurasoen aurrezkiak finantzarako funts gisa erabili ditzakegu, behar izanez gero.